

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2689

507/2018 EBAZPENA, maiatzaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Arantzazu Sistiaga Lasa andrea Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 705/2012 Ebazpenaren bidez (uztailaren 11ko EHAA, 135. zenbakia), Arantzazu Sistiaga Lasa andrea Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Asistentzia Koordinatzeko zuzendari izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusiak hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Arantzazu Sistiaga Lasa andrea Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostutik kentzea, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2018ko maiatzaren 31tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuari, eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.